

# GLOBO AEROSTATIKOA ETA HAREN SIMULAZIOA

Ikerketa proiektu honetan interesgarria iruditu zitzaigun nola globo aerostatiko batek hegan egin zezakeen, beraz haren funtzionamendua ikertu dugu eta simulazio antzeko bat egin dugu. Lehenik globo aerostatiko batek zergatik hegan egiten duen bilatu dugu eta informazioa bildu dugu. Bigarrenik, esperimentua egin baino lehen gure hipotesiak eta galderak planteatu ditugu. Geroago, hipotesiak egiaztatzeko esperimentua egin dugu eta emaitzak aztertu ditugu. Azkenik ondorioak atera ditugu eta bideo baten bidez komunikatu egin dugu.



## ARAZOA:

Globo aerostatiko batek nola funtzionatzen duen ikertu dugu, eta esperientu bat egin dugu, globo aerostatikoaren funtzionamendua simulatuz. Ideia hau aukeratu dugu demostratzeko hain zaila dirudien gauza bat, globo aerostatiko batek hegan egitea adibidez, zientziarekin posible dela. Kasu honetan, erreakzio batekin puika bat puztea posible da eta guk egiaztatu dugu ikerketa honen bitartez.

## METODOLOGIA:

Proiektu hau egiteko interesgarria iruditu zaigu globo baten funtzionamendua zein den jakitea eta begiratzea eta horri buruz informatzea. Gero esperientua egiteko material batzuk erabil ditugu eta guztiak batera laborategian esperimentua egin dugu.

Hasteko, esperientua internet-etik bilatu dugu eta haren urratsak jarraitu ditugu. Horren ondorioz, beharrezko materialak ekarri ditugu eta pausuz-pausu esperientua egin dugu grabatzen genuen bitartean. Azkenik emaitza ikusita ondorioak atera ditugu eta dana bideo batean laburtu egin dugu.

- ERABILITAKO MATERIALAK:

- Ozpina
- Puxika
- Bikarbonato
- Botila
- Inbutua



- ESPERIMENTUA EGITEKO JARRAITUTAKO URRATSAK:

- Lehenik eta behin, botila erdiraino ozpinez bete
- Gero, inbutuaren laguntzaz puxika bikarbonatoarekin bete
- Ondoren, puxika botilaren irekigunean jarri
- Bikarbonatoa ozpinera jauzi eta erreakzionatu ostean, karbono dioxidoa askatu egin da puxika puztuz.
- Erreakzioa bukatzean puika botilatik kendu

**EMAITZAK:**

Ez zen guk espero genuena. Guk pentsatzen genuen puxika puztuko zela baina poliki eta ez osotasunez, baina guztiz kontrakoa gertatu da. Puxika bikarbonatoa eta ozpinak sortu duen karbono dioxidoa igotzen hasi den heinean puxika puzten hasi da nahiko azkar. Beste aldetik ez genuen espero erreakzioan burbuilak sortuko zirela eta gero pixkanaka-pixkanaka burbuila horrek desagertzen joango zirela eta hasierako egoerara bueltatuko zela.



## ONDORIOAK:

Berriro egitekotan beste esperimentu mota bat egingo genuke adibidez behean dagoen argazkiko esperimentu eta simulazioa. Egindako esperimentua ikusita ez genuke aldatuko ezta hobekuntzarik egingo, arazorik sortu ez dizkigulako materialak lortzeari begiera edota esperimentuaren zailtasunari begira ere.



Beste globo honek, suzko sugar bat duenez, benetako globo bat bezala funtzionatzen du.

Proiektu hau aukeratuko genuke guk egindako esperimentuak puika hegan egitea lortzen ez duelako eta interesgarria izango litzatekeelako hegan egiten duen globoa egitea.

## BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK:

- Globo aerostatikoen [informazioa](#)
- Gure proiektua egiteko oinarritu genuen [web orria](#)
- Egingo genukeen proiektuaren [web orria](#)